

FRANCISCO REKIN

SOLASEAN

meke maia benondo  
pardelberri baserri  
kayoberri auzoa  
lesaka - 38700  
\* joki ona ki berri

# ETNOLOGIA

## ETA

# DIALEKTOLOGIA



Gizon honek Francisco Maya Vergara izena du, 72 urte ditu eta Lesakan bizi da, oso herri polita, Nafarroaren iparrean kokaturik dagoena, Bortzirietan.

Franciskok, izan dituen abenturak kontatu ditu honela hasiz:

"Eskolara juaten ginen denborin, handik etorri ta aritzen ginen amari egurrak ekartzen ta laguntzen giniogun pixko bat, gero bertze batzutan igual xerrikume batzuk izaten ginittugunin hek atera eteri ta heikin jostetan ta ama beti erristan zikintzen zirela ta gu alere ez sartu nahi izaten.

Gero bertze batzutan berriz ardi iztekuk eske ere juaten ginen, juaten nintzen ni hagitz gustatzen zaiten arditan ibiltzia ta ardi iztekuk ekarri eta gero izten ta pixkot hasitzen nintzen ta erristan beti saltsakiatzen aritzen nintzela ta aritzen zizkiten bino alere beti segi han tartin batna ardiyak hagitz gustatzen zitzaizkidaten niri ttikiya nintzenikan ere.

Gero bertze denbora batzutan berriz zuek bezaltze guain zuek aritzen zaretan bezalaxe gaxtakeriyin, bati harat juan bertzin honat etorri, non zabilzate ez kontestu ez gunula aditzen arran ta, ta dena adittuta ta gero bertze batzutan berriz bertze edozein gauzan aritzen ginen, beyan antzinin ibiltzen ginen eskolara hagitz yuan nahi izaten <sup>ez</sup>guk ta itxekuk bialli egiten ta batzutan uzten ginituzten beyan antzinin ibiltzeko, lurra iraultzeko, irauli egiten baitziren beyakin ta zera, etzen tratorerik ta yeus izaten ta lurra iraultzen beyan antzinin ibiltzeko, ta bertzik libratzeko gu itxin gelditu eskolera juan gabe ta gu, ni, eskola gabe gelditzen nintzen ta eskolako denbora allatu arte 9k aldeño do hola ikagarri ongi ibiltzen ginittugun beya gottigo bettigo ta ni beti han ondo-ondun makil txar bat espres egina beyan antzinin ibiltzeko, ta atta bieltik "ñe hori duk hori, beyak ongi ibiltzia, zurekin gustua dik lanin ibiltzia, hola ibilli bihar tek hola beyak..." ta gero pixkot bieltxio eskolko denbora pastxia izaten zelik pixkot antzintxio ta hola hasi polliki-pollik i gero berriz ya pasatxik hamarrak ordun kriston bitan antziñera juan ta han yarrita-yarrita beyak alletzeko esperun ta atta ondotik erristan "non yaiz Fracisco? begiziok bei hokeri ez duk bihar eskolera hola gelditzeko

lanik,han yuan bihar aski agudo",ordun pixkotin berriz hola ari ziren ta instantin berriz ahantzia ta berriz lehenengo martxan.

Egun batin eskolan hagitz poliki pasatu zitzaigun gure maestraua jua zen solas egitera kanpokaldera ta gu eskolan hainbertzeko mutiko pilla ta Xaturdino Fidelena bazen bat ta, bertzia Julian Igoa, bueno gehigo ere baziren,bino hek biyek, despertadore bat idukitzen zun bere mayan gafin ze ordu zen ikusteko ta hek hura yuan zen denborin kanpora ordu bat antzintu relojua ta eskolan sartu ta instantin labak eskoltik ateri ta denak kontent frontonera pillotan aritzera herriko-tzeko arkupetan ta hor onduan beste eskola izaki ta hango maestraua etorri, ta aber ze pasatu zen, ta eskoltik ateri ginela ta harek segidun abisua biala beste maestruri ya nola ateri zittun, zer pasatu zen ta ordua izatin ateri zittun ta ezetz guaindik etzela ordu hori, gero eskoltik ate ta galdeka hami bertze mutikuri ta hek erran zeinek antzintu zuten ta han ginen kuadrilla hura dena atzera, eakolera dena,eskolara jua ta ehunen bat aldiz berriz ez genula gauza hura eginen denari eskrituarazi ta hurrengo ordua heldu zen denborin kontent halere inork sumatzeko beldurrik gabe itxera.

Gu zure tamaintsukuginefin do pixkomat ttikixigua izango nintzen guainik izango nittun zortzimat urte do hola, esnia opilakin edaten nugun, talukin afaltzeko ta gustatzen zigun esne otzakin talo beroa, opila, guk opila erraten niogun ta esnia bezpakua izanezkero, hagitz ona izaten zen do goizkua arratxin bino, numattere egun hartan ez izaki ta egosi berriya ta nik hartu, guk oporrak izaten genittun, ordun katilluk bezala oporrak izaten ziren egurrezko, zera, kaikuk bezala tñikiyak ta heñak batin hartu ta leyun kanpoaldin patu ta leyua itxi ta hura kanpukaldin hotutzen ta hola boñaxka batin eduki ta ni probatzen hasi ikus bar nula hoztu zen ta leyun gainera ateri nintzen, hola xabal bat izaten zen leyua ta haren gafiara ateri ta leyun nintzen denborin rast! oporra yuan zen goitik betti ta nonbatt kolpia titu nion ta ni ondolik aspikaldera laubat metro edo ez dakit zenbat zun altura harat erori ta han artalastukin ta zolin botatua atalaya egiteko aren gafiara ta ai ama!bertzik lasterka atetik barna bueltan mifia hartu izanen nula seguski ya xetute nintzen ta hek abitzen ziren goitik betti ta ni beti gotti atzera bueltan heldu nintzena.



Gero bertze batin horretik agudo xamar izango zen mutiko ttiki xamarra nintzen benpin, bi xerrikume nittun bertzik salduk ta txar xamarrak geldittuk. Ta bat zen ipurdi beltz bat, emia, ta bestia arra. Ardiya ta ordotxa eta ipurdibeltza ikaragarri polita ta ni beti ariten nintzen mañak itten zu guain aritzen zaren bezela hareri ta etzanda yarri ta egiten zen ta, ikaragarri polita zen. Ikaragarri matte ta harekin zerrama egin bar genula ta itxekuk ere bayetz erraten zidaten ta igual etzuten intentziyurik izanen beinpin bayetz erran niri eta egun batin xerrikumi hura hil, guri, ta nik pena ikaragarriya hartu xerrikumia hil zenin ta, zerritegiko atin kontra ni nigarrez ta atta han pasatzen zen ta: "Zer duk Frantzisku nigarrez; xerrikumia hil, nere xerrikume ipurdi beltza hil" "Motel motel ta zerrikume bat hil ta nigarrez, zerrikume bat hiltā ez da nigarrik egitten, zerriyak izango tuk gero re. Atta hil ta ezyuken negarrik iñen ta zerriya hiltā nigarrez".

Holko istoriuk aunitz pasatzen zela guri, aunitz bait ginen, senide aunitz ta denak bat bertziri zirikon beti. Egunduan batin ama yuan Donostira ta, San Fermintako soñak itteko tela eske, ordun tela ekartzen bait zen etzen arropa josirik izaten, jertse batzuk ta horrela biñon soñik ta hola ez, ta juan ta Karolina Beran den hura, ta amatxi, ama izanen ziren, noski juanak. Ez dakit bertzerik izenen zen, eta hek etor ziren, paketikin ta arropak, arropak egin telak ta itxera, pixkotin sukaldin egon ta ekarri zittuzten pastel batzuk ere horrako hor on horitik ta pastelak armayun gañin utziyak zittuzten ta heurek kuartora yuan, Kristina Ubirin dena jostuna bait zen, ta horrek yositzen zittun arropak ta hura kuartun aritzen zen yostan ta harat juan ziren paketikin ta arropak ikustera, ta kontent kriston bñllin denak ta ni bakarrik sukaldin, pastel hekeri begira. "No! janike bat ba pozik, ta janen nitek" ta berriz ere pixkot begittu ta ezin agontu nozpattere beinpin bat hartu ta "rast!! ta zapi! katua! zapi! ek ateri ta: "ze pasatzen duk? Zer pasatzen duk?" "Katuk jan dula pastela" "Nora juan duk?" "Hortxe barna juan duk lasterka". "Urde zerriya" ta zerdakit zer ta ni irriz ta han sukaldin aski kontent orduko yana.

Bertze batin iraztara juan ziren atta ta arrebak goiztik, Uoreko azpikaldin mugan irazlaya ta aik goitik iratzia pikatzera. Ta ordun juan ziren batzuk goiztik ta gero bertzik gosaria eramin ta bertan jan bertze batek bazkaria eramin ta bertan jan ta bertan bertan jan ta denak lanera arratsaldin berriz hartan. Ta goizin juan ziren hek irazlaira ta gu gosarikin Antonio anaia ta gu biyek.

Ta hura saskiya bizkarrin ta ni haren ondolik biyek gosarikin ta izrazlaira jeitsun alletu ta hura kakillia sartu ta bidin saskiya utzi ta bere azpikaldeko arbol ondora kaka egittera. Ta ni re gosik ta ikus nahi benpin ze gosari te zen ta begitzen hasi saskiya nonbattere okertu egin izanen nun pixkomat , gazta osua izaki ta hor abitzen da goitik betti iraulka .Orra ; hura altsatu ta niri erristan ta ze induk ta ze egin izanen nun pixkomat, gazta osua izaki ta hor abitzen da goitik betti iraulka.Orra ; hura altsatu ta niri erristan ta ze induk ta ze egin bihar dugu ta errista. Tani kuzkur beldurra errista do paliza emanen ziatela . Beinpin biyek goitik betti ya - jaeoloko ondoño, gazta billa biyek harat ta honat , harat ta honak irazlayin irazlai batin. Nozpattere atta bixkar batera ateri ta han bulla adittu izanen zun ta guri begitu ta.

"Ze ari zate hor? " " Gazta joan zaigula goitik betti ta ezdugula arrautzen." "Motel ekartu gosari hori honat abudo -- gosaldu bihar dugu ta; "Beti gotti etorri ta ni ikatua ui -- ama guaintxe erran zaukit nik botatua gazta ta gaztarik ez. Joan ta bertzik gosaltzeko prestatuk yarrita yarrita ta ze pasatu zen ta? Gazta joan zela goitik betti saskiya utzi genula lurrin ta gazta joan zela goitik betti.

" Hale ez du jo izanen azpikaldin kakiten ari zen hori"

Ta orduan hasi ziren batzuk irriz ta atta ere irritz hasi ta ni konten errista etziatela emanen.

Gero kontrabandun ere ibiltzen zen, ordun Lesakako yendia ia dena kontrabandun ibiltzen zen, gu mutiko gazte xamarrak ginenin ta gu erebai, alik eta gehiena , ta egun batin joan ginen Nabastrungo pasora bi idi antzingo egunin bertzik ekarri Domikora eta bizemin segituz bielera geldittu , ta ur ondora joan era tren-bidin azpikaldera pasatu asi baten girizira .Beratarrak etortzen ziren denborin paketik edo azindakin botatzen zuten. ;Tum; harri bat urera kontraseña hor zirela ta guk bertzia botatzen genion han ginela esperun ta ordun harri bota zuten guk ere bai bertzia ta ordun segidun beratarrak pasatu ziren honataka aldera guregana Lorentzo zuen izena harek , torri zen jurata ia etzen inorre ta etzela inorrere gu bertzerik etzela ia etzen peligrori ez zegola inorrere ez zuela ikusi inorrere ; han solasin ginelik krik krak egur sonuki batzuk ta hor heldu dire guartzibilak , orduntxe alletzen ta "Alto;" ta tampa; tirua ta ui ama ta inotara ez eskapedik nahi bazen ta ezpazen putzura joan bihar , bertzelaz han gelditu rau putzura saltatu ta astiyakin mantxo izan ez gero aixa

pasatzen ginen busti gabe gu leno , bino gu busti , pixkot  
bustita belauntik gotxigo bustita biño lasterka hasi ta gu  
putzun segidun iraulka ta bueno zaketa , txaketa eramin Anto-  
nio guriri ta goitik-betti ta txaketa ez utzi nahi ta areri  
segika iraulka ta nozpaitere bertze aldera nolapattere alletu  
ginen, belaunin miña hartu nun orduzkeroz bein ere ez zait  
sendatu ongi eta harat joan "ta gu guain itxera nola joan bi  
har dugu" & Nonbaitik joan biharko diagu ba, ta dena bustiyak  
lepoño zipatuk atorrak ta, jertsiak ta denak loi-loi egiñak "  
ta guk nondik joan bihar dugu itxera ? "Bueno beratarrak ---  
emango zittuztela arropak eta guk hekeri eman ta kambiatu ta  
haik joan ziren berriz itxera ta gu karreteraz bertzelaz Be-  
riyuko zubiyan izautuko gintuztela hek segidun nondik eldu  
gihen ta gu arropa idorrakin itxera, etorri ginen.

Gero bertze batin era pasatu zitzaigun Telletxekoborda --  
ondun izugarri polita, hartu nittugun pakezik zelaingo ondun  
ta karri paketik honat gotti ta bidin noiz nahi deskansatzen  
hola sualo batin joan ta atsein , ta azkeneko atseinaldia --  
egin nugun hemen Barrakako belasun dena kuadrilla osua yun--  
tatu ta izanen ginen hamalau hamabortz lagun bederen ta de-  
nak atsein ta gu Maurixio Barrakakua ta biyek antziñin , len  
biziko joan zen Gardelsoko Xantio paketerik gabe, honek bi-  
jiltuko zuela bidia guartzibilik edo jous baldin bazen, hu-  
ra pasatu zen eta hura pasatu zen eta gu trunkil deskansu -  
errin biyek harek batere ikusi gabe guartzibillak gordik  
zirenak , ta gu alletu ginenin Telletxokobordako zerrakura  
ondun hór ateitzen zaizkigu sasi zar baten ondotik bi guar-  
tzibillak Tipi ta "Älto" tipi ta tapa ta tipi tirua ta bota  
paketia ta lasterka , Maurixio harak gotti joan omen zer, ni  
berriz h onat telletxeko borda ondora onatxio torri ta "Para  
,pare " ta panpa tirua elduki ta panpa bertzia ta nozpaite  
bertzik bota zituzten paketik gero bidin agertzen hasi eta  
hek aurkitu zituztenin hura gelditu ta ni sei lasterka inala  
guztitan ta Telletxobordako parétan gaintik saltatu ta bara-  
tze txar bat izaten zuten itxin ordun aretara eta handik be-  
rriz azpikaldera pasatzen hasu ta txapa haundi bat ta haren  
ganin pasatzen hasi ta hankak lurrera alletxen ez ta Klink  
Klan Klin-Klan ts nolpatte ta pilla erdi iraukin jautxi ta  
pasatu handik gainkaldeko belasura ta dandik bordaspitako -  
belasun sartu ta handik goitibetti itxera lasterka iñor arr-  
arrautzeko beldurrik



Len-leno Lesakako herriyan haserre izaten omen ziren beti hor rio Onin edo izenakduna bada herreka bat Lesakan goitik betti etortzen dena pasatzen dena Eskolttikiko zubiya pasatuta herriya betti Zialdoko onduan betti erreka bi aldetakuk alde honetakuk eta hanguk beti haserre eta beti yoka ta itten omen ziren denak ezin bakik egin ta benpin nozpattere bakik egin zittuzten nolpattere gizonak ta hartu ta deittu ta nola zeatu ta arreglua egin elkarkin ta arreglua egin zuten denborin pentsatu omen zuten. Beno, hura zelebrazteko egin bar zela ezpatadantzarik. Dantzarik, dantzarik egin bar zutela ta uran aldi hartakun kontrako ayekin dantzatu bar zuten ta hemenguk aldi artan eskuinkaldetik zirenak ezkerkaldin ta ezkerkaldekuk eskuin aldera etor bar zuten dantzatzera uran bazterko harri haren gañin petrilan gañin dantzatu bar zuten eta antzinekua berriz zubiyan gañin dantzatu bar zuten goiko zubi haren gañin. Hura egin zuten orain dela laureun urte hola izanen zen hori ta gero ordutik iñen zen bakia ta haretik heldu da beti guain San Fermintan urtero orduzkero beti Lesakako zubiyan gañin hori egiten dute dantzatu espata ezpatadantzarik, eta zubiyan gañin bandera egiten da bandera arboltu erraten diogu guk edo bandera dantzatu.

Ni neu ere espata dantzaria izandu nahiz han ibiltzen nintzen dantzan.

Ezpatadantzaria eta gero banderakin ibiltzen nintzen orain dela hogeitamar urte edo horrela banderakin ibili nintzen 6 urtez nik ibiltzen nun zubiya haren gañin bandera, 6 urtez ibilli nun, prozesiyutan eta nik ibiltzen nun Lesakako bandera konzejal bait nintzen.

Gero Inauteriyak ere beti hagitz ederrak egiten ziren beti, Lesakan denak mozorroz yauntziyak ta betitik denak disfrazatuak ta zako-zaharrak horik berriz horik hagitz aspalditik heldu direnak omen dire horiek beti konstumbre bat zako-zaharrekin mutillak yantzi ta neskak lagundu betetzen eta zakuk yosi eta gero hek herriyan buelta arratsin, ta gero arratsin etortzen ziren denborin plazan bueltan yarri hek eta hekeri zako-zaharrak denak xehetzen, denak mutiko kozkor eta ume kozkorak ibiltzen omen ziren.

Leno Lesaka agita alegria izaten zen beti auzo guzitan egiten ziren berbenak, erraten geniogun guk, bestak, hemen Bittik kalia erraten geniogun guk Bittiriko auza honeri euskaldun kalia ta hor egiten ziren, patzen ziren zutik postik ta ezpelakin, ta papera, sedazko lorik egin ta denak adornatu ta bonbilla

gorriyak ta berdik ta horiyak ta aski politak patuk, ta gero orkestak ekartzen zittuzten ta ekin jo musika, bailia, besta larunta arratsaldin hasi eta igande arratsin akautu. Gero frontonan ere Plaza Berriko bestak han ere gauz bera egiten zen dena ezpelakin ta adornatu ta kriston besta dena musikakin larunta arratsin hasi eta igande arratsin bukatu, ta han bestia bettigo, Legarrea yuan Zialda dagon tokiyan, han Madelen egunin izaten zen besta, 22 de Julio izaten zen hanga besta, berriz han ttikigua egiten zen hemen berriz haundigua hontan besta edergua izatten zen.

Gero hemen Iñautik egitten ziren gerra ondotik etzen libre izaten Lesakan Iñautik egittia, Lesakan ez, iflon ere ez ez bait zen libre disfrazatzia ta yeuserez, eta lehenbiziko hemen hasi zen yendia Iñautik egittin, goitarrak erraten zittuzten Iñautik, ta hasi ziren hemen zuriz yauntziyak ta hasi ziren ixilik iflor sumatu gabe Iñautik permisorik gabe, ta gero hasi ziren pixkan-pixkan herritik honat etortzen yendia. Herritik etortzen ziren musikarik ta denakin kuadrilla plantatu ta betik gotti torri eskin ta Olan bazkaria, ta besta ordun egiten ziren Endarrekan eta endaboardan izaten zuten egun batin zuriz yauntziyak, ta beste egunin San Antonan ta Olan bertan edo Endarabordan, han besta egin ta bertan gelditzen ziren lo egiten zuriz yauntzi hoitik gottik ta etxera ez yuategatik kuadrilla haundiya ziren yende aunitz yuaten zen harat. Ta Endarabordan hola sala haundi bat izatten zen ta dena betia yendez kordionakin besta.

Urte batin gu ere ateri giñen Iñautitan ateri Nabaztik zera eskera, ta bidi ondun hartzen nittugun itxik ifiez Nabaztik Katazpi aldera Bordatxon gosaldu ta handik Katazpin barna honat Auzoberrira ta Auzoberrin hemen bide ondun hartzen ziren itxik egin ta San Antonera bazkaltzera, San Antonen bazkaldu ta endabordara dantzan ibiltzera ta han bertze kuadrillakin batera dantzan ibilli, ta beko Migel Angel Gartzinbordakua nola dire horiken atta San Jurjo kordionista piru-liru piru-liru yotzen zun.

Guain Lesaka aunitz aldatu da lenako denboretan umik giñen denborin gure amakin ta elizara yuan ta hen mandautuk ta erosi eta saskiya burun etortzen ziren saskiya burun ibiltzen zuten mandautuk betik gotti ta denak bertzikin solasin ta yendik non nai, edozein yandik bazitten bide ixkintan ta dena haikin solasin guain baiño aunitz amistade gehigo izaten zun yendik elkarrekin guain adios ta akabo da biño ordun denak solasin ta denak ezagunak familiakuk bezala bat bertzikin



uniona gehigo, guain hasertzen da yendia segidun ordun ez zen hainbeste hasertzen yendia, bat bertzikin amistade gehigo izaten zen, aunitz goxogo elkarkin.

Leno San Fermintan ta besta earra egiteh, ta guain ere baiño leno hagitz ederrak egiten ziren Lesakan. Musika arratsaldetan 9 aldeño do hola yotzen zuten gero berriz hamaikatan hasi ta goizeko biyak artin ta arratsaldeko musika akautzin denak bakotxan itxera yuaten ziren afaltzera gu Pillotira ta bakotxa beren itxetara afaltzera ta gero atzera bueltan denak irrintzika ta gotti betti oyaka berriz musika bukatu ta itxera, ordun ez zen gaupasa ta hoitik gutti itten zen hagitz, denak besta egin ta itxera denak atzera bakotxak bere etxera yuaten ziren illunabartan ta."

Honekin bukatzen da Franciskok kontatutako guztia.

Lesaka, 1996-ko Martxoak 31.

Izen-deiturak:Nerea Maya Elizondo  
Helbidea:Gardelberri baserria Auzoberri Auzoa  
Lesaka Nafarroa Tel:387040  
Maila:D.B.H l.D  
Ikastetxearen izena:Toki Ona institutoa.